

agero-rekin badu zer ikusirik. Gure herrian ohitura zaharrekoa da ezkongaiia bilatzeko Arrateko gurutzari hiru buelta ematea. Baina han bueltak eman eta begiak eta bihotza nora eroan ez dakitenentzat, erromeria egunetan maiz entzuten da panderojotzaileen ahoetatik kopla hura: «Eperrak kantatzen dau Arrate ballian, neskarik ederrena San Pedro aldian». Era hortara eskongaiaren bilaketaz adibiderik anitz bada gure folklore zahar hortan eta zenbait berri ematen da *Iker* — 2, Piarres Lafitte-ren omenezko liburuaren 854-857 orrialdeetan.



ETXEPAREN GARAIKO POESIAK.—1980an, Patxi Altunak, *Linguae Vasconum Primitiae* (Edizio kritikoa) delako hartan, aintzin solasaren XX. orrialdean zion: «Etxeparek herria izan zuela bere zenbait bertsoen iturri». Eta ondorean jarraitzen zuen esanaz: «Beste puntu bat nahi nuke hemen hitz gutxiz agertu. Tradizio luze baten ondorengoa da, noski, gure poeta, ez batbatean sortu eta erpina jo duen bertsogintza dotore eta bikainaren fruitua. Lehenagokorik ez dugu ezagutzen, baina izan zuen nahitaez. Horrelako poetarik eta batez ere horrelako bertsogintzarik ez da sortzen, ezin daiteke sor goizetik gauera».

Azken urte hauetan euskararen ikerketak hartu duten abiadurari esker, Etxepare baino lehenagoko bertso idatzirik aurkitu ez bada ere, garai haictan bazirela euskaldun poetak erakusten digute Mondragoeko eresiak eta bestek, eta eritzi horren lagungarri datoz berriki egin diren aurkikuntzak. Hara hemen pare bat adibide:

Antonio Unzuetak Madrid-eko Biblioteca Nacional-ean aurkitu zuen Etxepareren garaiko Juan de Undiano nafar paderedo eremitak euskaraz jarritako *Miserere mei Deus* bertsoak. Lehenago Bernardo Estornés Lasak aipatu zituen *Fontes Lin-*

gua Vasconum-en 5. zenbakian, Goiñi Gaztambideren lan batean oinarriturik. Honek publikatu bai zuen «La vida eremitica en el Reino de Navarra» (*España Eremitica*. Actas de la VI Semana de Estudios Monásticos. Pamplona, 1970) deritzan lanean Obanos-ko Arnotegi ermitan pader zen Juan de Undiano eta bere lanen berri, 335. orrialdean euskarazko liburuxka aipatuz: «Un libro *Cancionero*, de mano, en vascuence», ondasunen inbentarioa egitean. XVI. mendearen erdi aldeko heme-retzi bertsoak osatzen dute. Aurkitzaileak *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 39. zenbakian (1982) argitaratu du sorta polit hori.

Baina, bestalde, 1554an Frantziako Tolosan inprimatutako liburuxka batean Nafarroako errege Henry Borbon-i zenbait hizkuntzaz eskainitako laudoriozko bertsoen artean euskarazkoa ere aurkitu da. Liburuxka horren ale bat British Museum-en gordetzen da, une berean jo dute Enrike Knörr eta Jean Haritschelharren eskutara eta elkarren berri jakin gabe, biek, *Iker-2*-rako lan bana prestatu zuten. Piarres Lafitteren omenezko liburuaren antolatzaileok, hori ikustez, jaun biokin mintzatu ginen eta bien artean hautatu zen Haritschelharrena argitaratzea.

Ez ginake batere harrituko besterik agertuko balitz ere, harrigarriagoa litzake eskuizkribu zaharretan besterik ez agertzea. Dena dela, guzi honek arrazoia ematen dio P. Altunaren usteari.

Etxeparen liburua baino zortzi urte lehenagokoa da Fr. Joan de Zumarragaren gutuna (ikus *Euskera*, XXVI, 5-14 orr.), baina hau hitz-lauz dago eta ezta poesiagintzaren exenplu hartzekoa, baina bai oraindik aurkikuntzak egingo direnaren adierazgarri.

* * *